

BALEIKE

263. ZENBAKIA. EURO BAT
2017ko MARTXOA

www.baleike.eus

AEK_{-KO} BETERANOAK

Eustara

20. Korrikaren atarian 80ko hamarkadan Zumaiaiko AEK Euskaltegian aritutako hiru partaideen hitzak jaso ditugu.

AEG
BITROZERAMIKA HK623021FB

242,10 €

269€ - %10 bueltan

Biak erostean:

449 €

499€ - %10 bueltan

AEG
INDUKZIOA HK633220FB

386,10 €

429€ - %10 bueltan

AEG
INDUKZIOA HK6532H2FB

404,10 €

449€ - %10 bueltan

%10

bueltatuko
dizugu AEG
markako
integrazio
guztietan

Pirolitiko

Pirolitiko

Plussteam
bapore aukera

242,10 €

269€ - %10 bueltan

395,10 €

439€ - %10 bueltan

449,10 €

499€ - %10 bueltan

AEG
LABEA BE3013021M

AEG
LABEA BP301302FFM

AEG
LABEA BP301352WM

BOSCH XURGAGAILUA
BBHMOVE4N

18 v

129 €



BALAY
ONTZI
GARBIGAILUA
3V5572

A++

3. bandeja

399 €

ZURIA

469 €

INOX

Oparia!



8 kg

1.200 bira/min

inverter
motorra

409 €

ZURIA

499 €

INOX

BALAY
GARBIGAILUA
3TS986

ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endañetazumaia.com

TIEN 21



Gorka Zabaleta



10
baleike +

“EUSKAL HERRIKO ARTEAK URGENTZIAZKO HAUSNARKETA BEHAR DU”

HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odriozola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnaitz Rubio Aprea, Iosu Alberdi,

Jose Manuel Castillo, Jabi Gonzalez Toston,

Izaskun Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



5
blogak
IKASTOLA GINEN

7
herri galdeketa
KIROLARIAK ETA
SINDIKALISTAK

18
erreportajea
ALTXORRIK EDERRENA

25
baleike
GIDA 2017

26
erretratua
JULEN IZARRA

30
agenda
MARTXOA-APIRILA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



TOKIKOM



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES Izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel./Faxa: 943 14 31 20
www.a3zumaia.com
a3@a3zumaia.com

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak




AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera

Tel. 650 265 963

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943 861 280

LIBRURU DENDA

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI

dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261



Amama taberna

tel: 943 543 164
amamataverna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

Ardantzabide

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com



Denda: Txomin Agirre, 4 Tel. 943 862 532

Aroztegia: Santiago, 40 Tel. 943 861 631


ARGISUN

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girotea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA Artxupe

Nazkari 2 • Tel. 943 801 501

ZUMAIA

OGI-EDER



Arruti

ARROPA DENDA



Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injekzioa
Diesel injekzioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantente mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autoszumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943 861 485

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 793 406 / 943 862 651
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

Sari Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa: 943 148 306
bakun@euskainet.net



Basodi albaitaritza

Ribaitorio
Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basodi.com
www.basodi.com

Golez: 11-13 / Arrabaldok: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itabi
Lantekidetsako: 605 728 737 Etaz ebeko zerbitzua



BASUSTA

erretegia • asador

José Blázquez

Patxika Etxezarreta, 25
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



Braky's

Okindegia • Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Ikastola ginen

IMANOL AZKUE IBARBIA

“Makina bat purtzilkeria egindakoak gara” (Estanis Azkue)

Edadean aurrera noalako seguru asko, baina gero eta sarriagotan egiten dut atzera denboran, eta askotan txikitako kontuak hobeto gogoratzen ditut joan den asteakoak baino; gainera, nire oroitzapenetako asko Ikastolakoak dira, beste hainbat lagun bezala ni ere Zumaiaiko Ikastolan ibili nintzelako.

Oroitzapenen sokari tiraka, hor azaltzen zaizkit momentu onak eta ez hain onak, ateraldi barregarriak eta pasadizo beldurgarriak; hor etortzen zaizkit lagun min egin diren ikaskideak eta ia ahaztu egin ditudanak; hor bistaratzen ditut andereño, maisu eta irakasleak, guraso saiatu eta laguntzaile eskuzabalak; hor agertzen zaizkit ia magia eginez ikasteko baliabide bihurtzen genituen objektuak (adibidez, zinemako karreldegian erabilitako kartulinak); hor datozkit era guztietako lokalak (ganbarak, etxabeak eta zinemako lokalak); hor azaltzen zaizkit eskolaz kanpoko irteerak Itziarra, Santimamiñera, Lizarrara, Donostia... edo Larraulgo egonaldiak...

Bai, Zumaian Ikastola izan zen, eta gutariko asko han ibili ginen, gure haurtzaroko hamar urte baino gehiago Ikastolan pasatu genituen. Baina ikastola hartatik apenas geratzen zaigun ezer, ez badira oroitzapenak. Ikastola 1994an herri eskola bihurtu zenetik urte asko iragan dira, eta denboraren joanak ertz guztiak higatzen eta leuntzen dituenek, ia heldulekurik utzi gabe, Ikastola hura lausotzen ari zaigu, eta ia galtzen ere bai, esango nuke; azkenean, emango du Zumaian ez zela inoiz ikastolarik izan. Gaur egungo Zumaiaiko umeentzat, euskara hutsean ikatea gauzarik normalena da, naturalena, baina beti ez da hala izan; izan ere, 1966 urrun hartan, gaztelania zen nagusi Zumaiaiko eskoletan, eta guraso aitzindari eta ausart batzuek pentsatu eta erabaki zuten seme-alabak euskaraz hazi eta hezi behar zituztela, bazutela horretarako eskubidea eta beharra, ezina ekinez egin behar zutela, eta ezer ez zegoen lekuan ernarazi zuten Zumaiaiko Ikastolaren landarea, gero handitu eta kimu berriak eman zituen.

Iraun izan balu, iaz, 2016an, Zumaiaiko Ikastolak berrogeita hamar urteko beteko zituzkeen. Urteurrena ez zitzaidan oharkabean pasa, eta urtearen hasieran neure buruari agindu nion Ikastolaren kontuak bildu behar nituela nonbaiten, sortzaileetako batzuekin egon behar nuela testigantzak jasotzeko, Ikastola zer izan zen eta zergatik sortu zen jakiteko eta

hobeto ulertzeko. Horretan jardun dut azkenaldian, tarteka ahal nuenean heltzen gaiari, hasi eta utzi, hasi eta utzi, ikasle txar baten moduan, eta jasotzen joan naizena “Ikastola ginen” izeneko blogean jartzen hasi naiz, baleike.eus-en (hemen: <http://blogak.baleike.eus/imanolazkue>). Oraingoan, bi atal daude sortuta eta ikusgai: “Atarikoak” (asmoen berri emateko) eta “1960ko hamarkada Zumaian” (garai hartan kokatzeko). Datozen asteotan, beste atal eta eduki batzuk sartzen joan-



go naiz, eta pixkanaka osatzen: Ikastolaren sorrera eta lehen urteak, barne krisia (edo haustura), Ikastola indartzea eta Arrangoletara joatea...

Ikastolako kontuak jaso eta txoko horretara eraman nahi ditut, iragana orainera ekarri, baina ez nuke nahi izatea bakarkako lana; alderantziz, nahiko nuke era batera edo bestera Ikastola ezagutu zenutenok ere zuen ekarpena egitea, bakoitzak ahal edo nahi duenarekin, eta guztion ahaleginari esker, gure oroimenean bada ere, Ikastola hura berreskuratzea, izan zena eta egindakoa jasota geratzeko, eta, batez ere, omenaldi txiki bat egiteko garai haietan Ikastola bultzatu eta aurrera atera zuten emakume eta gizon haiei; trukean ezer espero gabe eta borondaterik onenarekin “makina bat purtzilkeria” (edo hainbeste lan txiki, handi, nekoso...) egin zutenei, berdin guraso, irakasle edo laguntzaileei.

Adina edozein izanik ere, berriz ere Ikastolara bueltatzera gonbidatu nahi zaituztet, beti dagoelako zer ikasia iraganetik eta egindakoetatik, eta batez ere badaukagulako zer eskertua Ikastola aurrera atera zutenei. ■



Martxoak 8

Emakumearen Nazioarteko Eguna

Zumaia 2017



Zumaia Udala

MARTXOAN

Zumaia txartela erabilia tailer eta gasolindegietan gastatzeko 50 €-ko txartelak lor ditzakezu

Arantza auto-elekttrizitatea

Autos Zumaia

Bayona Neumatikoak

Elustondo gasolindegia

Narrondo gasolindegia



Zumaia Udala



CAJA RURAL

Maiatzaren 7ko herri galdeketari begira, Ontziratu taldea herriko hainbat eragilerekin biltzen ari da. Prozesuan ahalik eta jende gehienak parte hartzea du helburu, elkarlanak emaitza hobekak ekarri ahal izateko. Eragile horien artean kirolari eta sindikalistak daude. Horietako batzuei galdetu diegu gaiaren inguruan.

IOSU ALBERDI ETA JOSE MANUEL CASTILLO



“Herri galdeketa batek **aberastu** egiten du demokrazia”

Kirolarien partetik, Julen Aizpurua Zumaiaiko Triatloi Taldeko triatloilaria, Karlos Del Pilar Zumaiaiko Futbol Taldeko harrobiko entrenatzailea eta Zumaiaiko Korrika Taldeko kidea eta Deñe Izaga Taosa taldeko igerilariarekin bildu gara. Sindikalisten partetik, Iñaki Arrieta ELAko ordezkariak eta Lorea Mendiola LABeko ordezkariak erantzun dizkigute galderak.

Zergatik egin herri galdeketen alde Euskal Herriko etorkizuna erabakitzeke?

Julen Aizpurua: Nik ez dut galdeketa egin behar den dudarik. Bakoitzak bere iritzia emateko eskubidea eduki behar duela iruditzen zait. Herritarrontzat, zumaiairontzat, aurre-rapauso bat izango da galdeketa egitea. Jendeak erantzuten badu.

Deñe Izaga: Herritar bezala, eskubidea eduki beharko genuke gure etorkizuna erabakitzeke eta horretarako denon iritzia hartu beharko litzateke kontuan. Euskal Herriko hiru milioi herritarron etorkizunak gure eskuetan behar du. Ez da gauza asko eskatzen.

Karlos Del Pilar: Demokrazian benetan sinesten dugunok uste dugu beti aberasgarria dela galdetzea, demokrazia horren kalitatea beti hobea izango delako. Herri galdeketa batek aberastu egiten du demokrazia.

Iñaki Arrieta: Etorkizuna erabakitzea norbanakoen eskubide bat da, egungo egoeran aurrera eramatea oso zaila den eskubide bat. Baina maiatzaren 7an eskubide hori gauzatzeko oso aukera ona dugu.

Lorea Mendiola: Egun erabakitzeguneak gero eta urrutia- go daude eta horrek kalte egiten digu herritar bezala. Urrutitik hartzen dira erabakiak, ez dituztelako kontuan hartzen gure ezaugarri eta behar propioak. Langileen ikuspuntutik, oraindik ere sufritzen ari gara Madriletik eta Bruselatik etorri zaizkigun murrizketak eta eskubide galerak, hemengo negoziazio ahalmena murriztu dituztenak. Orduan, hemen lan egiten badugu, gure erabakiak hemen hartu nahi ditugu.

Zein onura ekarriko dio Zumaiaiko herriari galdeketak?

Julen: Ezagutzen ez garen asko, elkarlanean, ekintzen bidez edo argazkiekin ezagutuko gara. Bakoitzak nondik jotzen duen.

Deñe: Adin, jatorri eta ideologia ezberdinetako jendea gauza komun bat egiteko biltzen denean beti da positiboa. Auzolana, elkarbizitza, denon artean zerbait bultzatzea. Herri eta pertsona bezala indarra emango digu, benetan libre egiten gaituena erabakiak hartzea baita.

Karlos: Gizartean urruntasun izan dena hurbiltasun bilakatzea. Hainbeste urtetako gatazkaren ondorioz, norbera bere lubakian eroso sentitzen da normalean eta irtetea kosta egiten da. Herri ekimen hau garrantzitsua da elkarrenganako konfiantza berreskuratzeko.

Iñaki: Herritar bezala, bozka eskubidea izate hutsak jada onura bat dakar demokraziaren ikuspegitik. Beraz, nire ustez, Zumaia eta zumaiairrak irabazten irtengo dira galdeketa honekin.

Lorea: Printzipioz, herri galdeketa batek ezberdinen arteko elkarlana eskatzen du eta dinamika ona sortzen bada, horrek



Goitik behera: Lorea Mendiola, Karlos del Pilar, Deñe Izaga, Julen Aizpurua eta Iñaki Arrieta Aurreko orrian, San Juan Egoitzako langile taldea.



elkarbizitza sendotu dezake Zumaian. Gainera, espero dugunez hemendik aurrera galdeketak errepikatzen eta ugaritzen joatea, esperientzia honek ikasteko lagunduko digu. Teoriatik praktikara jauzi egiteko ordua da.

Zein arrazoi emango zenioke galdeketan parte hartu nahi ez edota zalantzan dagoen herritarrari?

Julen: Aukera polita dela dauden prejuizioak gainditzeko. Denon iritziak entzutea ona da gauzak azkarrago eta errazago soluzionatzeko. Denontzat hobekuntza ekarriko duen bide bat izango da.

Deñe: Animatzeko esango nioke, beldurrik ez izateko. Ideologia, adin eta jatorri ezberdinetako jendea gaudela eta denon iritzia dela garrantzitsua. Aukera erreal bat izateko, zenbat eta jende gehiago bildu, hobea da. Ez da erantzun bat eskatzen, galdera egitea baizik. Hortik aurrera bakoitzak planteatu behar du zer egin.

Karlos: Beldurrik ez izateko, galdeketak beti dira onak. Ezberdinen arteko lan hau aberasgarria dela iruditzen zait. Denok irabazten dugu herri galdeketarekin, ez erantzun jakin baten alde daudenek bakarrik. Aurka daudenek ere legitimitate berdina dute.

Iñaki: Herritar hauei nik galdetuko nieke ea zer duten galtzeko bozka bat emateagatik eta ondo pentsatzeko noiz edukiko duten beste aukera bat halako gai garrantzitsu baten inguruan erabakitzeke. Esan-go nieke herritar bezala hau une paregabea dela herriaren ahotsa entzuteko eta horrela politikariak entzungora gera ez daitezen.

Lorea: Gure bizitzan eragina duten gaietan, erabakiak guk geuk hartzera ohitzen joan behar dugula. Gainera, gutxitan galdetzen digute zer nahi dugun edota zein den gure iritzia. Beraz, ezin dugu galdu Zumaian emango den galdeketaren aukera. Gainera, galdeketak erantzun denak onartu eta ezagutu nahi ditu. Beraz, denok dugu parte hartzeko eskubidea eta oso garrantzitsua da ahalik eta jende gehienak bozkatzea.

Zure ustez, nahiko erabakitze ahalmen al dute herritarrek?

Julen: Ez, bat ere ez edo oso gutxi. Azken finean, herritarrok agindu behar dugu eta politikariek horretan lagundu eta erraztasunak eman. Egun uste dut hori alderantziz dela.

Deñe: Ahalmena bai, baina oso motz geratzen dira. Erabakitzen dugu zein nahi dugun hor goian eta hortik aurrera beraien esku. Uste dut erabakitze eskubide handiagoa eduki beharko genukeela, azken finean gure etorkizuna dagoelako jokoan.

Karlos: Gaur egungo gizartean erabakitze ahalmena nahiko mugatua ikusten dut. Politikari bakarrik lotua dago. Hauteskundeak egiten ditugu eta garrantzitsuak dira, baina politikagintza oso zurruna da. Gizarteak bultzatu behar du politikagintza pauso gehiago ematera eta horrelako ekimenak



Goian Zumaiaiko Herri Eskolako DBHko ikasleak Erromara egindako bidaiari. Azpian, Xey enpresako langile taldea.

beharrezkoak dira herri nahia aurrera atera eta bultzada hori emateko.

Iñaki: Nire ustez, gaur egun erabakitze oso ahalmen txikia dugu. Baina, era berean, uste dut langileak eta herritarrak elkartu eta antolatuko bagina, erabakitze ahalmen askoz handiagoa izango genukeela. Borroka demokratikoa egin behar dugu gure bizitzako esparru guztietan.

Lorea: Ez daukagu, eta gainera ohitzen ari gara ez izatera. Hori da, benetan, arriskutsuena. Dinamika hori hautsi egin behar da eta langileen kasuan, ez langileek, ez hemengo instituzioek ez dute hemengo lan baldintzak erabakitzeke. Beraz, Zumaiaiko galdeketa beste pauso txiki bat izango da erabakitze eskumen hori berreskuratzeko. ■

Ismael **MANTEROLA**
EHUko irakaslea eta arte aditua

“Euskal Herriko arteak urgentziazko hausnarketa behar du”

TESTUA: MIRIAM ROMATET
ETA JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Ismael Manterola Ispizuak *Maite ditut maite. Transmisioa XX. mendeko Euskal Herriko artean* izeneko liburua argitaratu berri du. Horrez gain, *Asteleheneko akademia* izeneko hiru saioko ikastaroa emango du martxoaren 13tik aurrera arte garaikidera hurreratu ahal izateko. Liburuaren eta arte garaikidearen berri eman digu elkarrizketa honetan.

Alondegiko aurkezpenaren aurretik elkar-tu gara elkarrizketa honetarako. Lehenbizi, argazkiak atera ditugu Errotako izkinako eserlekuan. Askok bertan egiten dugu topo Ismarekin *Egunkaria* edo *Berria* irakurtzen. Behin argazkiak aterata, Alondegian jarraitu dugu elkarrizketa.

Nondik nora egin duzu liburu hau?

Edo! argitaletxekoek proposatu zidaten liburu bat idaztea. Iratxe Retolazak, argitaletxearen ardura duenak, gure fakultatean egiten du lan. Galdetu zidan ea zerbait nuen argitaratzeko. Ez nuen ezer idatzita, baina aspalditik nuen buruan ideia bat eta baiezkota eman nion. Transmisioaren ideia aspalditik nuen buruan. XX. mende hasierari buruz egin nuen tesian, 60ko hamarkadari buruz eman-



dako ikastaro batzuetan eta gaur egungo artistei buruz egindako kritiketan konturatu nintzen Euskal Herriko artean konstante batzuk agertzen zirela, mende hasieratik mende bukaerara bitartean. Beka baterako gidoi antzeko bat idatzi nuen; gero ez zidaten beka hori eman, baina baliagarria izan zitzaidan. Iratxek proposamena egin zidanean baietz esan nion, hori idazteko gogoia nuelako. 2014an hasi nintzen idatzen eta 2015ko udan bidaia beka bati esker Renon (Nevada, Estatu Batuak) pasa nituen bi hila bete horietan bukatu nuen.

Nondik dator liburuaren izenburua?

Bitan edo erabili izan dut. Josette Dacostak hemen [Alondegian] erakusketa inauguratu zuenean, 'Maite ditut maite' hitzak erabili nituen. Pentsatu nuen aproposa izango zela izenbururako. Euskal artearen inguruko topiko batzuk egon dira, XX. mendeko artearen ingurukoak. Topiko horiek lanbro antzeko zerbait sortu dute eta ezkutatu egin dituzte bazter batzuk, agian berriro ere aztertu eta ikertu behar direnak.

Zer topiko, adibidez?

Topiko handienetakoak mende hasierako pintura kostunbristarenak eta 60ko hamarkadan Oteizak berak sortutako euskal artearen ingurukoak dira: euskal artearen existentzia, arte esentzialista eta historia hori guztia. Bi topiko handi horiek bazter batzuk estali dituzte eta agian buelta bat emateko aproposak ziren. Liburuaren asmoa ez da XX. mendeko artearen historia kontatzea, istorio bat kontatzea baizik. Hasieran, liburu solteagoa izan behar zuen,



ERROTAKO IZKINA

*Eguraldi onarekin han
izaten da Ismael Manterola
egunkaria irakurtzen.*

hausnarketetan eta intuizioetan oinarritutakoa. Denok dugu idazle frustratu bat buruan eta pentsatzen dugu liburu zeharo erakargarria, modernoa idatziko dugula, baina, gero, uste dut deformazio profesionalak asmo horiek gerarazi dituela eta liburu askoz ere akademikoagoa atera da. Dibulgatiboa izaten jarraitzen du, baina dokumentatua ere bada. Edozeinek irakurtzeko modukoa da, baina baita eskoletan erabiltzekoa ere.

Kolaboratzaile batzuk izan dituzu liburu honetan.

Edo!-ren ohitura da arreta jartzea azalean eta diseinuan. Diseinatzaile batzuekin egiten dute lan, baina liburuen egileei eskaintzen diete azalerako artista edo egile bat proposatzea. Nik zalantza handirik ez nuen izan. Aran Santamariari galdetu nion ea lan hori egingo zuen eta oso lan polita egin du. Betiko diseinutik atera eta collage bat egin du. Zabalean ikusteko eginda dago. Lekuona Warholen planoarekin azaltzen du, modernitatearen ideia horrekin; nazioarteko modernitatea, baina baita modernitate euskalduna ere. Gero, Oteiza agertzen da hegan. Liburuak badu epilogoia eta da transmititu ez dena eta hor emakume artistak daude. Aranek barruan, ezkutatuta, bi emakume artista jarri ditu: bat Mari Paz Jimenez da, Oteizaren garaiko artista bat, harekin harremana izan zuena, baina inork ez dugu ezagutzen, ziur aski, emakumea zelako; bestea, berriz, Maider Lopez da.

Zein zen emakume artistaren egoera XX. mendean?

Transmititu ez den hari horietako bat da. Ideia batzuk transmititu dira, baina Euskal Herrian emakume artistak izan direla,



TRANSMISIOA

Edo! argitaletxeak atera du Manterolaren liburua.

Oteizak ez al du pisu handiegia?

Bai, izan du edo eman zaio. Mito bihurtzeko osagai guztiak zituen. Alde batetik, arrazoiarekin mitifikatu dugu, baina, aldi berean, pisu handiegia eman diogu. Nire kezka zen XX. mendearen hasieran egon zirela emakume artista batzuk eta ez ditugula ezagutzen; 60ko hamarkadan beste batzuk izan ziren eta haiek ere ez ditugu ezagutzen. Ikasleei proposatzen diet emakume eskultore baten izena emateko eta ez dakite zer esan.

Beste kolaboratzaile on bat Leire Arano izan da. Zuzentzaile lanak baino gehiago egin ditu: editore lanak ere egin ditu. Edo!-k edizio lanaz gain ez du ezer eskaintzen; nik liburu honekin ez dut ezer irabaziko. Salmentatik aterako den

ez. Mundu mailan orokorra izango zen, baina badirudi Euskal Herrian 60ko hamarkadan izan zela halako gauza militantea. Baina militantzia hori modu batekoa izan zen. Musikan Lourdes Iriondo izan zen, baina zein gehiago? Egia da arte plastikoa oraindik gutxiago izan zela. Oteizak eskulturaren inguruan zuen ideia oso maskulinoa zen. Emakumeak aparte geratu dira. Adibidez, niri interesatu izan zait ikustea beste arte jarrera batzuk, eskultura ez direnak, pixka bat aparte geratu direla. Esther Ferrerren gertatu dena, adibidez, adierazgarria da. Ferrer 60ko hamarkadan hasi zen artista bat da, baina eskulturak egiten ez zituenez, ez dugu ezagutzen. 90eko hamarkadan berreskuratu zuten, *performancea* garrantzia hartzen hasi zenean. Bitxikeria bezala ez, baina ordura arte ez zen artista handizat hartzen.

Pentsa TripAdvisor bezalako orri batean sartzen garela hemen zer dagoen ikusteko. Zer da, zure ustez, ikusi beharrekoa?

Badaude aukera ezberdinak. Askotan saltzen direnak museo handiak dira. Nik beste gauza batzuek proposatu nituzke: museo txikiak, museo pertsonalak. Adibidez, Zuloaga museo ondo muntatuta egongo balitz edo erraztasunak egongo balira ikusteko. Hirietan dauden kolektibo alternatiboak ere interesgarriak dira. Atzo Okelan egon nintzen [Bilbon]. Hiru artistak eramaten duten sormen tailerra da. Erakusketak, elkarrizketak antolatzen dituzte. Bilbaoarte ere hor dago, Bilbon. Bertan artistak lanean ikusten dira. Urazurritia kalean dago, Atxuri tren estazioaren aurrean, ibaiaren beste aldean. Aurreko batean, Gasteizko Errekaletorretik deitu zidaten. Artista batzuk okupa jarrita ari dira bizitzen

auzo batean eta haluzinatu egin nuen. Zeharo ondo antolatua zegoen! Urtaroen arabera mendira joaten dira artea egitera, proiektu batean daude. Beste mundu bat da. Gauza hauek zailagoak dira, baina ez dira sekretuak. Ezagutzeko modukoa da, baita ere, galerien mundua. Oteiza museo ere hor dago. Museo monografiko horiek niri asko interesatzen zaizkit. Tabakalera ere gaur egun punta-puntan dago. Tabakalera bera bisitatzeak ez dakit merezi duen. Barruan ez dago ezer ere. Nahiz eta berriena izan, erakusketa aldetik bera da okerreana. Tabakalera izan beharko luke arte munduko erreferentzia, baina hiri bizi bezala, Bilbo garrantzitsuagoa da.

Astelehenetako akademia, artea hurbiltzeko modua

“Esther Ferrerrek eta Jose Antonio Sistiagak muntatu zuten Donostian umeentzat *Ostegunetako akademia*. Heziketa metodo berrien bitartez artea erakusteko era bat zen edo, hobe esanda, munduaren ikuspuntua ematen zuen artearen bitartez, garai hartan modan zeuden pedagogia sistema batzuen bitartez. Nik *Astelehenetako akademia* izena jarri diot. Ideia dibulgazio lana egitea da. Nik uste arte garaikidean gabezia dezente dagoela. Nire asmoa da ideia batzuk ematea jendeari arte garaikidera errazago hurbiltzeko. Aztertuko da aldaketa hori non eman zen, inpresionismoak akademiaren kontra eman zuen urrats hori, eta gero, horren ondorioz, abangoardietan emandako pausoak. Ikasi nahi duen edozeini dago zuzenduta”.

Martxoaren 13an hasita, hiru astelehenetan, 19:00etan, Alondegiko Moila gelan. Doan bada ere, izena eman behar da (kulturetxea@zumaia.eus / 943861056).



AURKEZPENA

Ismael Manterola eta Iratxe Retolaza, Edo!
argitaletxeko arduraduna

dirua edizioa ordaintzeko izango da. Lehenbizi beraien editore taldetik pasa zen: Ibon Egañak, Danele Sarriugartek eta Mikel Peruarena Ansak egin zuten lehen bahetze lana eta gero Leireri pasan hizkuntza zuzenketa lanak egiteko. Baina hizkuntza zuzentzen ari zela, editore lanak ere egin ditu. Eta izugarri ona, zorrotza, eta niretzat laguntza handia izan da. Leireri esan nion bere lana dela nirea bezainbat.

Topikoak aipatu dituzu lehen, baina orain estereotipoek hitz egin nahi dugu. Artea sentitu, ulertu. Halakoak entzuten dira.

Arteak gauza on bat du: bakoitzak hartzen du nahi edo ahal duen bezala. Hori baino gehiago, ehuneko handi batean, jarrera kontua da. Jarrera ireki batekin bagaude, bat, artea disfrutatu dezakegu, eta, bi, hezi. Funtzio hori bete dezake arteak. Baina jende asko jarrera mesfidati batekin joaten da; pentsatzen du bere inteligentzia zalantzan jarriko duela. Beste edozein beldur bezalakoa da. Artista batek proposamenak egiten ditu. Zuk, gero, proposamen horiek hartzeko askatasuna duzu, kontuan ez hartzeko, sentipen maila batera heltzeko edo, nahi baduzu, sakontzeko eta ezagutzeko; mundua ezagutzeko modua izan daiteke.

Zer esango zenioke erakusketa batera etorri eta ‘Hau zer da? Adarjotzea?’ esaten duenari.

Gutxi dago egiteko. Artearen inguruan dagoen irudia beti da salbuespenekoa; gauza arraroa bezala ikusten da. Oso gutxi-

“Artearen inguruan dagoen irudia beti da salbuespenekoa; gauza arraroa bezala ikusten da”

tan azaltzen da integratuta egongo balitz bezala, normala izango balitz bezala. Askotan entzuten duzu: hori nik ere egin dezaket. Pentsatzen da artea ezin duela edozeinek egin. Bada, artea edozeinek egitea dauka. Gauza da pauso hori ematen dugun edo ez. Nik ez dut inoiz egin, ez daukat egiteko asmorik, horrek ez du esan nahi kapaza ez naizenik artea egiteko. Denok gara kapazak. Baina badira mugak eta beldurrak,

eta muga eta beldurrekin gauza gutxi lortzen dira. Askatasun guztiarekin hartzen dugun edo hartzen ez dugun zerbait da artea. Harrigarria egiten zait jarrera horrekin erakusketa batean sartzea. Nik uste heziketa lan handia egin behar dela. Artean, akademian, dibulgazioa gaizki ikusita dago. Dena ez da jendearen kulpaa. Artea, askotan, halako misterio edo zailtasun baten atzean ezkututzen da esateko inportantea dela. Ekonomiarekin konparatzen dut bolada honetan. Ekonomiak diskurtso bat muntatzen du eta esaten dizu zuk ez dakizula ekonomiari buruz; ezin duzula jakin zer gertatzen ari den munduan ekonomiarekin. Baina hori gezurra da: denok dakigu ekonomiaz. Euro bat dugu, zerbaitek bi euro balio ditu; beraz, ezin dugu erosi. Hori ekonomia da. Baina diskurtso horiek muntatzen dira jendearengan konplexu batzuk sortzeko interes batzuegatik. Arteak ere baditu halakoak. Interesak daude artea salbuespenekoa izateko, gauza berezia izateko, genioen lana izateko. Jendeak hori entzuten duenean, ikusten duenean eta sentazio horren pertzepzioa duenean,

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurtrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



Amalako plaza, 13 tel. 943 862 385
www.xantzialtzariak.com



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

BEEP

DIGITAL+



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel: 943 11 63 97

Galdona



burdindegia

Mondaroz murrerela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 300

Ganbarara

TABERNA

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



kafetegia

Txomin Agirre kala Tel. 943862181

GLENCOE

INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 beheha
943 143 278



Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943 865 020
info@goldengateinstitute.com

kanpoan geratzen da, eta artea, bokazioz, alderantzizkoa da, publikoa da. Plazan gertatzen da artea, bestela ez da artea.

Arco ferian izan zara. Nola ikusten duzu arte garaikidearen egoera?

Arte garaikidea beti bezala ikusten dut; ez dut uste asko aldatu denik. Sistema komertzial oso potentea dago eta hortik kanpora ia ez dago bizitzarik, zaila delako. Horrek tristura pixka bat ematen du. Batzuk ondo ari dira moldatzen sistema komertzial horretara eta askatasun handia dute. Ikusi dut badagoela aukera interesgarria eta,aldi berean, komertziala izateko. Horrek lasaitu egin nau.

Euskal Herriko arteak urgentziazko hausnarketa behar du. Arcora sei-zazpi galeria joatetik aurtien bakarra joatera pasatu gara. Horrek esan nahi du galeriarik ez dagoela, desagertzen ari direla. Euskal artista mordoa ikusi nituen Espainiako galerietan. Hori aditu ihesa da! Horri alternatiba bat aurkitu beharko diogu, bestela... Instituzioetatik ere ezin da gauza handirik espero, bideratzen zuten dirua moztu dutelako. Bilbon liburua aurkeztu zenean, batek esan zuen euskal artisten lanak ikusteko Reina Sofiara [Madrilen] edo Macbara [Bartzelonan] joan behar dela. Pentsatu nuen *boutade* bat zela. Gero, Madrilen egon naizen asteburuan Reina Sofiara joan naiz eta Txomin Badiolaren atzera begirako bat ikusi dut Retiroko egoitzan. Oso erakusketa interesgarria muntatu dute. Hemen, aldiz, ezin duzu Euskal Herriko artisten lanik ikusi inon ere. Artiumek [Gasteizen] ez du dirurik, ez erakusketak

muntatzeko, ez obra berriak erosteko. Gaur, gainera, esan da Guggenheimi 4,5 milioi euro eman dizkiotela eta pentsatzen duzu ea zer gertatzen den. Ez dut ulertzen. Bestela, euskal artisten maila izugarria da. Burura etortzen zait idazleek Durangoko Azokan esaten dutena: maila handiko idazle asko dago eta irakurle gutxi. Hemen ere ematen du eskaintza eskaera baino handiagoa dela.

Nola ikusten duzu kultur diziplinak elkar gurutzatzea?

Liburuan interdiziplinaritatea aztertu dudanean, nire ustez Euskal Herriko artearen ezaugarrietako bat izan dena, bai XX. mende hasieran, baita 60ko hamarkadan Ez dok amairu eta halako ekimenekin, planteatzen dut gaur egun halakorik ez dudala ikusten. Beldur pixka bat ematen dit kultura munduan artea alde batera ez ote duten utzi edo artea bera bizkarra emanda dabilen. Proiektu oso umilak badaude, baina proiektu handietan... Adibide oso ona Loraldia da. Derrepente Bilbon txanpinoi batek irtetzen du, Loraldiak, arte diziplinen arteko zerbait proposatzen duena. Baina arterik ez zegoen. Lehen urtean ez zen ezer egon. Bigarren urtean, kritika horiek entzunda, kolektibo batekin kontaktatu zuten eta zerbait egin zuten, nahiko lardatsa izan bazen ere. Aurtien programa irakurri dut eta ez dago ezer. Agian izan daiteke artista beraiek zirkuitu horietatik kanpo daudela. Antzerki munduan antzezleek idazleak ezagutzen dituzte eta horiek musikariak, baina artistak ezagutzen al dituzte? Eta artistek euskal literatura irakurtzen dute? Bada, ziur aski ez. Baina, beno, hori nire inpresioa da. ■

Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Sarea

Laugarren industria-iraultza lurraldeko enpresa guztietara iristea.

Hori etorkizuna da.

ORAININDUSTRIA4.0
Laugarren industria-iraultzarako prest

ORAIN EKONOMIA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa





Altxorrik ederrena

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

80ko hamarkadan sortu zen AEK Euskaltegia Zumaian. Historiak kontatzen du 1985eko irailean hainbat irakaslek Zumaiaiko AEKren ardura hartu zutela urte batzuk lehenagotik jarduten zutenei txanda hartuz. Hain zuzen, garai hartako irakasleetako bat Jone Telleria izan zen, eta distira eta irribarre berezi batekin gogoratzen ditu orduko kontuak. Ikasle izan zituen Begoña Fernandez eta Terin Ruiz Butronekin batera iraganera egin dugu jauzi.



Jonek oso argi dauka: “Euskara, kanpotik begiratuta, beste hizkuntzak bezala altxor handi bat da. Hiztun komunitate horretan sartzeko atea ere bada, bertako jendearen kultura eta pentsamoldea ezagutzeko bidea. Barrutik begiratuta, aldiz, mundua, gure errealitatea, nahiak eta desioak ulertzeko eta azaltzeko tresna da”.

Begoña eta Terin Jonerekin bat datoz. Jaiotzez bizkaitarrak biak, ez zuten euskara etxetik jaso, baina euskara ikasteko zalantzarik ez zuten izan Zumaiara bizitzera etorri zirenean. “Nire senarra eta biok beti izan genuen euskararekiko maitasuna eta errespetua, eta gogoratzen naiz hona bizitzera etorri ginenean, Jalgi Hadi izena zuen metodoa erosi genuela”, aipatu du Terinek. Begoñaren kasuan, euskararekiko ezagutza nulua zen. Enkarterrietan jaioa, bailararen kokapenagatik edo (Kantabria eta Burgosek muga egiten du), ez zuen sekula euskararik entzun. “Euskararekin izan nuen lehen kontaktua senarra ezagutu nuenean izan zen. Ordura arte ez nintzen konturatu Euskal Herrian beste hizkuntza bat zegoenik ere, oso aberatsa eta polita zena, gainera. Gogoratzen naiz ezkondu aurretik hura ikusteko trena hartzen nuela Bilbon. Han ez zen batere euskararik entzuten. Durangora iritsi eta hemen, berriz, jendeak euskaraz egiten zuen. Ematen zuen muga bat zegoela”, kontatu du.

Jonek, aldiz, euskara etxetik jaso zuen. Txikitik ikasketak gaztelania hutsean egin behar izan zituen, oraindik ere Francoren diktadurapean bizi baitziren. Gurasoek irakatsi zioten euskaraz, etxean.. Ikasi bakarrik ez, euskara zaintzen eta maitatzen ere erakutsi zioten. Horretaz gain, gaueskoletara joaten zen euskaraz alfabetatzera. “Apaiz etxean ematen ziren klaseak eta gogoratzen naiz ezkutuan joaten ginela. Joanito Dorronsoro, Joxe Mari Romatet, Jon Sodupe eta abar ziren irakasleak. Zumaiako herriarentzat euskararen erreferenteak bihurtu zirenak. Bertsotan ere ibiltzen ginen, Manuel Mari Garaterekin eta Manuel *Bitarterekin*”, adierazi du.

Baina 18 urterekin Londresera abiatu zen ingelesa ikastera. Bidaia hori bere euskararen garapenerako mugarrria izan zen. “Gezurra badirudi ere, han konturatu nintzen ez nintzela gai behar zen bezala euskaraz eskutitz bat idazteko etxekoei. Orduan erabaki nuen euskara ongi ikasi behar nuela”, esan du. Handik bueltan, euskaraz alfabetatzen hasi zen, eta euskarako irakasle izateko titulua atera ondoren, AEKn hasi zen lanean. 1983-1987 urte bitartean izan zen irakasle. “Euskararen

transmisio horretan hartzaile izatetik emaile izatera pasa nintzen eta zorionekoa izan nintzen”, aipatu du. Ilusioarekin eta lanerako gogoz zegoen talde batekin topatu zen bertan. Hala nola Ixabel Dorronsoro, Marian Manterola, Abelin Linazisoro, Axun Elduaien, Ixabel Muñagorri, Maritxu Etxabe, Peio Enparan eta Miriam Romatet, esaterako. “Aparteko aipamena Belen Golmaiori egin nahi diot. Orduko zuzendaria zen, niretzat eredu eta iparra izango zena. Udaletxeko euskara teknikari lanetan hasi zenean, zuzendaritzako erreleboa pasa zidan. 1987an La Salle ikastetxean lanean hasi nintzenez, nik Miriam Romateti pasa nion testigua, eta lan horretan jardun zuen kultura teknikari lanetan hasi zen arte”.

Terin: “Nire senarra eta biok beti izan dugu euskararekiko maitasuna eta errespetua”

Begoña: “Senarra ezagutu arte ez nintzen konturatu Euskal Herrian beste hizkuntza bat zegoenik ere”

Jone: “Londresen konturatu nintzen ez nintzela gai behar zen bezala euskaraz eskutitz bat idazteko etxekoei”

Integrazioaren aldeko apustua

Garai haietan Zumea Ikastola izan zen euskara klaseen gotorlekua. Urte haueetan guztietan klaseak leku ezberdinetan eman dira, baina Begoña eta Terin Arrangoletara joaten ziren euskara ikastera. 12 bat pertsonaz osatutako klasea zen beraiena. “Egunero joaten ginen, arratsaldeko 7ak aldera, eta ordubetez ematen genuen klasea. Egia esan, oso gustura joaten ginen”, adierazi du Terinek.

Esfortua eragiten ziela ere komentatu dute. “Lehendabizi, lanera joan, gero etxera familia kontziliatzera eta ondoren klaseetara. Ez zen oso gogorra, baina ezta erraza ere”, aipatu du Begoñak. “Hizkuntza bat ikasteak bere lana ematen du, eta lasaitasuna behar da, azkenean tentsioak sortzen baititu. Eta funtsezkoa konfiantza da”, gaineratu du Jonek.

Egun Begoña eta Terin biak jubilatuta daude, baina lanbidez irakasleak izan dira. Euskara ikasteko arrazoietako

bat komunitatean integratzeko eta giza harremanak sortzeko eta sendotzeko nahia izan zen. Gaztelania askorik ez zekiten umekin komunikatzeko arazoak zituzten. Momentu hartan, San Pedro ikastetxean zen irakasle Terin. “Eskolan nituen ume euskaldunekin ezin nintzen komunikatu eta asko sufritzen nuen”, gogoratu du. Begoñak ere esperientzia bertsua izan zuen. Garai hartan Mutrikun zen irakasle, eta gelan zutabe bat zegoela akordatzen da; zutabearen atzean mutiko bat jartzen zen beti, ezkutuan. “Egun batean konturatu nintzen mutila baserrikoa zela eta ez zekiela gaztelaniaz. Bere beldurra zen nik berari zerbait galdetzea, eta horregatik ezkututzen zen zutabearen atzean. Orduan jabetu nintzen hizkuntzak zenbat mugatzen dituen pertsonen arteko harremanak eta komu-



KORRIKA

AEKko ikasle eta irakasleek bizi egiten zuten Korrikaren etorrera Zumaiara.



nikazioa orokorrean. Mutiko horrekin gertatu zitzaidan anekdotak eman zidan behar nuen bultzada euskara ikasteko”, kontatu du. “Londresen nengoenean, hizkuntza berri baten aurrean nik ere gabeziak izan nituen, mugak eta beldurrak. Horrek balio izan zidan nire ikasleei ulertzeko eta beraiekin identifikatzeko. Azkenean, hizkuntza pertsonengana iristeko tresnarik egokiena izan daiteke, baina, aldi berean, harreman horiek mugatzen dituen”, gehitu du Jonek.

Euskara ez jakiteagatik askotan arrotzak sentitu direla aipatu dute Begoñak eta Terinek. Are gehiago, derrigortu egin dutela jendea gaztelaniaz egitera beraiek ez zutelako euskara ulertzen. Komunikazio harremanetan oztopo gisa ikusi dute beraien burua askotan.

Euskaltegian hainbat metodo erabiltzen zituzten euskara ikasteko. Hasieran material gutxi zegoen, baina irakasleek eduki berriak ere sortzen zituzten. “Irakasleen gela Aita Mari zinemaren goialdean zegoen, eta zinezale taldearekin elkarbatzen genuen”, gogoratu du Jonek. AEK-k berak emandako

materiala erabiltzen zuten, *Aizu* izeneko aldizkariak... “Orduan hasi ginen gure lehenengo unitate didaktikoak prestatzen, eta zarauztarrekin asko elkartzten ginen metodologiak eta abarrez hitz egiteko”, jarraitu du.

Metodoa aipatuta, bitxikeria bat gogoratu du Jonek. “Londresen nengoela, Charing Cross kaleko liburu denda batera sartu nintzen. Liburuak begiratzen hasi nintzen eta zer aurkituko eta euskaraz ikasteko metodologia liburu bat! Emozionatu eta guzti egin nintzen. Euskal Herrian apenas zeuden metodoak oraindik. Han aritu nintzen Londresen nire kabuz euskara eta ingelesa ikasten”.

Zertarako balio izan die euskara ikasteak?

Gramatika, hiztegia, komunikazio estrategiak... lantzeaz gain, festak edo jaialdiak prestatzeko aukera ez zuten galitzen. Santomas eguna, Gabonak, Inauteriak... Euskal kulturaz eta abestiez jabetzeko geldialdi egokiak izaten ziren. Baina horietatik indar handiena Korrikak zuen. 1980an

Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

www.academiarharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriondo optika



Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orofarako solinu eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943 63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIAK

Angelin Soratu, 2
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
fax: 943 430 637

Talaira
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

ORRAZTEGI ZUMAI



943 862 083

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basodi auzategia, 10 tel. 943 05 05 77

JUSTA
taberna

Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943 861 405 justa@justataberna.com

KABI Patxita Etxezarreta, 15
943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

DOIA



Julio Beobide, 2
943 574 986

kuttun
lentzeria



erribera kalea tel. 943117936

TOPAKETA

Jone Telleria eta bere ikasle izandakoak urtero elkartzen dira afari batean.



izan zen lehenengo edizioa, eta euskaltegian zeuden bitartean hainbat pasa zituzten. “Ilusio handiz prestatzen genuen Korrikaren eguna. Dortsalak margotu, marrazkiak egin, abestia ikasi... Gainera, herrira etortzen zen momentua hunkigarria izaten zen”, adierazi du Terinek. “Halaxeda, bai. Zirrara eta poza sentitzen genuen Korrika herrirantz iristen ari zela ikusten genuenean. Une horrek, iristeko uneak, indar handia du. Askotan, gainera, ordu txikitik iristen zen Zumaiara. Kasu horietan, baratzuri zopa edo zerbait beroa hartzera joaten ginen soziedaderen batera”, jarraitu du Jonek.

Eta gaur egun, euskaraz bizi al dira Terin eta Begoña? Terinek aitortu du gehienbat gaztelaniaz hitz egiten duela. “Lotsa ematen dit, konfiantza falta handia daukat eta horrek moztu egiten nau euskaraz hitz egiteko”, adierazi du. Astean behin euskal dantzak egitera joaten da Zarautzera, eta han euskaraz egiteko parada izaten du. “Ederki pasatzen dut euskal dantzetan, eta, gainera, hileroko hirugarren igandeetan Donostiara joaten gara Bulebarrean egiten den dantza saioan parte hartzera. Harreman guztiak euskaraz izaten dira eta horrek lagundu egiten dit hizkuntza praktikatzeko”, esan du.

Begoñari euskara ikasteak pertsonen harremanak izateko, erlazionatzeko eta komunikatzeko balio izan dio. “Batzuetan zailtasunak daude, hala ere. Kurioso da, hasten zara pertsona batekin euskaraz hitz egiten eta bera

gaztelaniara pasatzen da. Eta zuk berriro euskaraz egiten diozu, badakizulako berak euskaraz badakiela, baina berak gaztelaniaz jarraitzen du. Ez dakit, agian zurekin ohituta dago gaztelaniaz hitz egitera, edo ez da konturatzen euskaraz badakizula. Ohartu naiz ohitura kontuek eragin handia dutela”, kontatu du. Hala eta guztiz ere, ahal duen heinean euskaraz bizitzen saiatzen da. “Nire gurusoak etxean izan

ditut duela gutxi arte, eta ez zekiten euskaraz. Horrek etxeko hizkuntza baldintzatu digu. Baina bai, saiatzen gara noizbehinka, behintzat, euskaraz egiten, eta seme-alabekin ere euskaraz egiten dugu”, amaitu du.

Umeak txikiak zirela, eta beraiek ikasten hasiberriak, egiten zituzten hanka sartzeak gogoratzen hasi dira barrez. “Hasieran lotsatu egiten ginen, baina umorez hartu behar da eta ausartak izan”, azpimarratu dute.

Euskaltegiak beraien arteko harremanak lotu ditu. Irakasle eta ikasle izatetik lagun izatera pasa dira. “Pentsa zein gustura elkartzen ginen, oraindik ere afari bat egiteko geratzen gara urtero”, aipatu dute. Normalean sanpedroak baino astebete lehenago egiten dute afaria, eta nahiz eta elkarren artean oso ezberdinak izan, oso ongi pasatzen dute. “Egon gaitezke hilabeteak elkar ikusi gabe, baina elkartzen garenean, atzo egongo bagina bezala egoten gara, eta nola ez, orduko kontuak gogoratzen ditugu”, azaldu du Jonek. “Euskarak lotu gaitu, eta hori oso polita da”, nabarmendu du Terinek. ■

“Euskara ikasteko arrazoietakoa bat komunitatean integratzeko eta giza harremanak sortzeko eta sendotzeko nahia izan zen”

“Korrika herrirantz iristen den uneak indar handia du guretzat”

“Euskarak lotu gaitu, eta hori oso polita da”



Igor Iturain, Urola Kostako Udal Elkarte lehenakaria:

«Enpresei laguntzeko gaude»

Udal Elkarteak enpresentza-ko zerbitzuak eskaintzen ditu. Zer dela eta?

I.I.: Gure helburua eskualdearen garapena bultzatzea da eta, garapen horretan enpresek zeresan handia dute, izan ere, enpresek sortzen dute enplegua, neurri handi batean. Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako enpresa gehienak, 10etik 9, txikiak dira. 10 langile baino gutxiago dituzte. Enpresa txikientzat zaila da bete behar dituzten betekizun guztietara egokitzea (lege aldaketak, merkatuaren eskaerak, produktuak eta lan prozesuak, berri beharra, merkatu berriak bilatzea...), behar adina baliabide ez dutelako. Horixe da gure eginkizuna, hor enpresei laguntza ematea eta enpresa berria sortu nahi duenari laguntza ematea.

Nolako zerbitzuak dira?

I.I.: Era askotako laguntza ematen dugu: informazioa diru-laguntzei buruz, ikastaroak gai zehatzei buruz. Adibidez, oraintxe esku artean ditugu datuak bastebe lege aldaketei buruzko ikastaroa,

produktu fitosanitarioak aplikatzeko ikastaroa edo ISO9001:2015 Arau berrira egokitzeko ikastaroa. Gero, programa zehatzak bideratzen ditugu, enpresen lehiakortasuna hobetzeko: batzuk, giza baliabideen kudeaketa hobetzeko eta pertsona oinarriztat hartzen duten ereduak ezartzeko, beste batzuk antolakuntza edo ekoizpen prozesuak hobetzeko, beste batzuk bailarako enpresen lankidetzara bultzatzeko... Programa eta zerbitzu horiek doakoak dira bailarako enpresentzat, hainbat erakundek (Foru Aldundiak, Europak...) edo udalek finantzatzen dituztelako.

Nolako oztopoak aurkitzen dituzue?

I.I.: Enpresek gure programetan parte hartzea kosta egiten zaigu askotan. Ulertzen dugu, eguneroko martxak ez dielako tarterik uzten itxura batean horren premiazkoak ez diruditen gaiak lantzeko. Baina, garbi dago etengabe hobetzea eta aldaketei aurrea hartzea dela bide bakarra etorkizun hurbilean lehiakortasunari eusteko. Eta horretarako

dira, hain zuzen ere, gure zerbitzuak. Enpresei esan nahi diet edozein kezka, galdera edo gabezia baldin badute jotzeko guregana. Enpresei laguntzeko gaude. Gainera, asko dugu enpresengandik ikasteko, merkatuaren «pultsua» berriek dute eta.

2017rako zein asmo dituzue?

I.I.: Ohiko zerbitzuekin jarraituko dugu eta beste hainbat erakundekin lankidetzan (Foru Aldundia, garapen agentziak...) hainbat programa burutuko ditugu. Berrikuntzen artean bi aipatuko nituzke: alde batetik, enplegu eta enpresak sortzeko eta inbertsioetarako diru-laguntza programa bat jarriko dugu martxan, 2016an Zarauzko Udalarekin bideratu dugunaren antzekoa, baina oraingoan bailarako bost herrietako enpresa eta ekintzailentzat. Beste alde batetik, 2017an eskualdeko mahai estrategikoa eratu nahi dugu, eskualdeko enpresa, hezkuntza zentro eta erakunde publikoen lankidetzara publiko-pribatua indartzeko.


Enpresentzako zerbitzuak

Informazioa, Aholkularitza, Prestakuntza, Diru-laguntzak, Lehiakortasuna, Lankidetz

ENPRESENTZAKO ZERBITZU ETA PROGRAMAK

Zerbitzu integrala, enpresa martxan jartzeko aholkularitza eta laguntzatik hasita

Une honetan beheko programak ditugu martxan, oinarrizko zerbitzuez gain. Jarri gurekin harremanetan, argibideak jasotzeko edo izena emateko.



HOBETU PREBENTZIO ZURE ENPRESAN

Lan arriskuen prebentzioa hobetzeko programa:

- Prestakuntza
- Aholkularitza zehatza

GEOLOKALIZATU ZURE ENPRESA

Geolokalizatze laguntza:

- Enpresa google mapsen egoki geolokalizatzeko.

BATERATZEN: UZTARTU PERTSONAK ETA ENPRESA

Pertsonak enpresaren estrategiarekin bateratzeko programa

- Enpresaren helburua zehaztu
- Diagnostikoa: enpresaren egoera
- Ekintza-plana lantzeko laguntza

MUGIKORTASUN PLANA

Zumaiako Joxe Mari Korta, Guascor eta XEY industrialdeetako mugikortasun plana:

- Planaren garapena
- Mugikortasun foroaren eraketa

INDUSTRIA SORTAZILEAK: LANKIDETZA

Kultura eta industria sortzaileetako eskualdeko enpresak sustatzeko proiektua:

- Sektorearen azterketa
- Lankidetzarako aukerak

SICTED PROGRAMA: KALITATEA TURISMO ARLOKO ENPRESETAN

Turismo sektoreko enpresentzako kalitate programa:

- Prestakuntza
- Aholkularitza
- Kalitate ziurtagiria

«Arin iritsi nahi baduzu zoaz bakarrik;
urrun iritsi nahi baduzu, goazen elkarrekin»

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est.2016

Ondartxo plaza 5, Tel. 943 860 484



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



MARGARI *Iruta-denda*

Tel. : 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

CROISSANTERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

Marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel: 943 861 691

Nikol
taberna

Amiako plaza 243561516



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

636 887 812 (Zumaia)
809 834 438 (Itziar-Deba)

www.carroceriasnoia.com

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

ETXEREN
OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com

Oliden arkitek-tura

678 875 652
943 143 093
lu@olidenreformas.com

ZARAUTZ - ZUMAIA

www.olidenreformas.com

Faxadak
Telatuak
Etxebiztan
(Bakarkak, banuzia)
Industria mantenimendua
Mota gutxiako igelberrak larak

Etxebiztan inspektio teknikoak (ITE)
Zerifikatu energetikoak
Faxaden diseinu eta aholkularitza
Etxebiztan berrantolak
Mota gutxiako proiektuak



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranatz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 08 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943 86 13 25
Julio Beceide Ibitokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Primavera
pizzeria

943 247 011
www.laprimaverapizzeria.com

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (Hodilloa)
Saltxitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

Julen **IZARRA** | SAXOFONISTA

Inprobisazioaren bizkarrean

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA



1977an Ermuan jaioa,
berak eibartartzat
jotzen du bere burua.
Azken urteotan, baina,
Zumaian bizi da. Julen
Izarra da, musikaria,
saxofonista eta
Nevermind Trio jazz
hirukoteko partaidea.
Talde horrek Onena
heltzear dago izeneko
diskoa atera berri du.
Jazzari buruz hizketan
izan gara Ubillosen
egindako elkarrizketan.

Charlie Parkerrek saxofoiarekin egiten zituen malabarismoek eraman zuten Julen jazzeko zaletasunean sakontzera. “Ez zen izan nahita hartutako erabakia. Charlie Parker hasi nintzen entzuten eta harritu egin ninduen zer egiten zuen. Saxofoiak badu pisu handia jazzaren historian. Oso interprete onak daude: Parker, Sonny Rollins, John Coltrane... Nik uste hor hasi nintzela jazzerako afizioa hartzen”, dio Julenek.

Beste musikari askok bezala, lehen pausoak herriko bandan eman zituen. “Eibarko bandan urte dezente egin nituen eta hor askotariko musika jotzen genuen. Bandak musikarien haztegiak bezalakoak dira. Ona dutena da erreperitorio handia ukitzen dutela: pasodobleak, zarzuelak, orkestren transkripzioak, filmetako musika... Horrek dezenteko kultura musikala ematen dizu”. Saxoa protagonista zuten beste musika batzuk entzuten hasi zen. “Garai bateko soul eta funk musika, James Brown, hori asko entzuten nuen. Ondoren etorri dena horren ondorioa izan da”. Oraindik ere bandan noizbehinka jotzen duela azaldu digu. “Baina ez errutina batekin, bizitzak ez du denerako denbora ematen”. Jazzeko taldeetan jotzeaz gain, klaseak ematen ditu Erreterian.

Jazza musika mota ugari biltzen dituen edukiontzi handi bat bezala ikus daiteke. Big band eta swing orkestratik hasi eta kakofoniatik hurbil dagoen free jazzera arte. “Dena da jazza”. Nevermind Trioren azken diskoan, adibidez, hip hopari ere tartea egiten diote pieza batean. Jazzak badu halako malgutasuna. “Jazza deitzen diogu inprobisazioari tartea egiten dion musika guztiari”.

Ulergaitza izateko fama du jazzak; entzule batzuek sarri diote ez dutela ulertzen. “Musikariok gure artista etorria jorratzen saiatzen gara eta egia da batzuetan entzuleengandik ihesi egiten dugula. Esploratzailea izan da jazza. Oso urrun joaten bazara normala da jendeak ez ulertzea, baina, askotan pentsatzen dut musika ez duzula zergatik ulertu behar gustatzeko. Hori bai, musika entzutera ohituta egon behar duzu; interes bat izan behar duzu. Beti gustatzen zaizkigu lotu ditzakegun musikak. Ornette Coleman gustatzen zait, agian, aurretik Coleman Hawkins entzun dudalako. Lotura bat egiten dut eta errazagoa egiten zait ulertzea eta gustatzea. Jazzak mende batean egin duen ibilbidea musika klasikoa bost mendetan egin duena da”

Eta zu non kokatzen zara?

Nire gustuak estilo nahiko klasikoetatik ateratzen dira. Be bop, hard bop, estilo horietatik. Ez naiz hain free jazz zalea; beti gustatzen zait helduleku bat izatea, nahiz eta momentu batzuetan lokatzetara salto egitea gustatzen zaidan. Jotzerako orduan askatasuna ematen duen musikan kokatzen dut nire eta Neverminden musika, helduleku batetik abiatuta inprobisazioa eta musikarien arteko komunikazioa lantzen duena. Oinarria Ameriketako jazz tradizioetik datorkigu baina erritmo eta sekuentzia berrietara egokituta, kontuan hartuz gu ere nongoak garen”.

Jazzaren ezaugarri handienetako bat inprobisazioa da. Horrek asko lantzea eskatuko du, ezta?

Horregatik diot euskarriren bat duen musika gustatzen zaidala.



Inprobisazioa lengoaia bat da. Ez da zerotik datorren zerbait. Solo bat egiten duzu, entzuten duzu eta pentsatzen duzu: “Kontxo!, hau egin dut zerbait entzun dudalako nonbaiten”.

Ume txikiak nola egiten dute hizkeran? Hasieran dena kopiazen dute; ez dakite zer esan nahi duten eta gero poliki-poliki loturak egiten dituzte. Nik uste zentzu horretan antzera egiten dugula. Charlie Parker kopiazen hasten gara gustatzen zaigulako eta gero saiatzen zara beste zerbait egiten. Hor konturatzeko zara erdi nahaste bat egiten duzula.

Jazzean egiten duten inprobisazioak eta bertsolaritzak lotura bat dutela uste du Julenek. “Antzera jokatzeko dugula uste dut. Beraiek ere bertsoak zerotik hasten dituzte, baina aurretik sekulako lana eginda dute. Ohitura ere badute. Zentzu horretan pareka daitezke”.

Geldirik geratzeko gogorik ez eta denbora honetan zenbait taldetako partaidea izan da: “Organiks-ekin blues eta soul ukituko musika jo dut, RS Faktor-ekin gehiago landu dut hard bop estiloa eta Nevermind Trio esperimentalagoa da.

Azken horrek bere laugarren diskoa argitaratu du orain gutxi, *Onena heltzear dago* (Errabal jazz, 2016) izenekoa. Jorge Abadiasek (gitarra elektrikoa), Hasier Oleagak (bateria eta perkusioak) eta Julen Izarrak (saxo tenorea eta sopranoa) osatzen dute taldea une honetan. “Taldearen bi diskotan jo dut nik. Badago grabatu genuen beste disko bat eta argitaratu ez genuena. Baina aterako da!”, dio barre eginez. Nevermind Triok abiapuntu bitxia izan zuen: Nirvana rock taldearen

kanten jazz bertsoak egiten hasi zen. Rockaren zale askok jakingo duten bezala, *Nevermind* Nirvanaren bigarren diskoa izan zen. “Askotan aitzakiak behar izaten dira zerbait haste-

ko. Musikariok bodetan eta ahal dugun tokietan jo behar dugu. Ez aspertze aldera, kontzertu monografikoak jotzen hasi ziren. Nirvanaren moldaketa egin zuten eta hortik abiatu zen proiektua”. Lehen disko hartatik gauzak asko aldatu direla uste du. “Hala ere izaera bihurria, abenturazalea eta errebeldea mantentzen du”.

Jazzak sekulako indarra izan zuen Franco diktadorea hil eta hurrengo urteetan. Anoetako belodromoak kolporaino bete izan da Jazzaldiko kontzertu batzuekin. Lehen zegoen jazzaren giro

hori galdu egin dela uste du Julenek, nahiz eta, adibidez, Donostiako Heineken Jazzaldira joaten den jende kopurua urtetik urtera handitzen den. “Lehen aukera handiagoa zegoen urtean zehar jotzeko, hiriburuetan, bereziki. Gure guraso musikalak izan direnak, Iñaki Salvador eta horiek guztiak, bazuten zirkuitu bat jotzeko. Guk hori ez dugu. Baditugu jazz jaialdiak, eta presio handia da han jotzea, baina hori egun bakarra da eta ez dizu urte osorako lana ematen”. Musika honen alde zenbait tabernak egiten duten esfortzua txalotzen du. “Eskertzekoak dira Zumaiako Itzurun edota Tolosako Orbela bezalako tabernen ekimenak urtean zehar jazz eskaintzeko”.

Eta Jazzaldia aipatu dugunez, haren bilakaeraren inguruko iritzia eskatu diogu. Jaialdi hau jazz ez den beste estiloetara zabaldu da azken urteotan eta horri esker pop, rock edo elek-

“Askotan pentsatzen dut musika ez duzula zergatik ulertu behar gustatzeko”

“Gure guraso musikalak izan direnak, Iñaki Salvador eta horiek guztiek, bazuten zirkuitu bat jotzeko. Guk hori ez dugu”

tronikako talde edo musikariak izan dira Donostian. Julenek ez du oso gustuko aldaketa hori. “Jazzaldia deitzen den unetik ez zait asko gustatzen. Jazzarekin edo musika beltzarekin zerrikusia duten gauzak ekartzen ahaleginduko nintzateke. Hor James Brown ikusi nuen eta gozatu egin nuen. Asko miresten nuen. Musika afrikarra edukitzeak ere badu zentzua. Baina Patti Smith bezalako norbait egoteak pentsarazi egiten du. Onartu behar da Miguel Martin [Jazzaldiko zuzendaria] oso abila izan dela babesle bat erakartzen eta horri esker Branford Marsalis ikusi ahal izango dugu. Aurten Herbie Hancock edo Wayne Shorter etorriko dira. Agian hori da bere zentzua”. ■



ERRETRATUA

ZATUZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: talasoterapiazelai.com

Tel. 943 865100

Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era

Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.

Talasoterapia



MARTXOA-APIRILA

ERAKUSKETAK

Oxford aretoan

Martxoak 3-19

Fatiha Hajji Baba

Martxoak 21 - apirilak 2

Darahli, 10 urte

DEIALDIAK

Martxoak 24-25 Zumaia

dendarien Merke Azoka

MARTXOA

8, asteazkena

18:30 Oxford aretoan hitzaldia: Belen

Uranga (Euskara, bestela ez gara zikloa)

9, osteguna

22:00 Aita Marin antzerkia: *Koaderno*

Zuri, Hika teatroa

10, ostirala

19:30 Forondan Gune elkartearen

meditazio saioa

16, osteguna

18:00 Oxford aretoan hitzaldia:

Haurren garapena pausoz pauso (Feli Oregi)

22:00 Aita Marin zine forum:

Comoara (El Tesoro) J.B.A. Zuz:

Corneliu Porumboiu

17, ostirala

19:00 Oxford aretoan kontzertu

didaktikoa: Juan Mari Beltran

23, osteguna

22:00 Aita Marin Zinegoak jaialdiko

laburmetriak

24, ostirala

19:30 Forondan Gune elkartearen

solasaldia: *Homosexualitatea eta erlijioa, erlijioak, kulturak* (Jose Arregi)

25, larunbata

19:00 Komentuan kontzertua: Aqua

Lauda Korua

30, osteguna

22:00 Aita Marin Zinegoak jaialdiko

pelikula berezia

APIRILA

1, larunbata

19:30 Zumaia Udal Musika

Bandaren udaberriko kontzertua.

Oxforden.

7, ostirala

22:00 *Jainko basatia* antzezlan. Aita

Marin.

8, larunbata

19:00 San Pedro Abesbatzaren

kontzertu sakroa. Komentuan.

21-30 San Telmo jaiek.



Zalla
 • plater konbinatuak
 • ogitartekoak
 • oilasko erreak
 Urda Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
 E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com
 BASOIA 12
 20750 ZUMAIA
 Tel: 943861018 / Fax: 943016175

Zumaia Hotela
Jatekera Kalitatea
 Alai suzlegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
 ZUMAIA MOTOR S.L.
 José Rey Alfaro Gerente
 Santxo Auzoa, 22
 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 Telef. 943 143 143 - Fax 943 865 161
 e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

Txomin Agirre kalea 6,
 750 Zumaia, Gipuzkoa
 T. 943.143.057
www.eduoptika.com
E D U
 ZUMAIARD
 OPTIKA
 RPS 18/16

Araneta



Karta zabala
Berezitasunak:
parrilan prestatuturiko
arrain eta haragiak

Asteazken zehar
EGUNEKO MENUA eta **KARTA**
eskaintzen dira



Meagako errepidea 8, Zestoa

Tel. 943 148 092

Araneta erretegia



Itzurrun

Taberna

KONTZERTUA

20:00etan

Apirilaren 7

MARLIK



Itzurrun Zuhaizbidea, 1. tel. 943 86 21 24

ZUMAIAKO SOLDADURA ZENTROA

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA SOLDADURA



Bailara eraikiz

- ✓ Hezkuntza arautua, Oinarrizko Lanbide Heziketa: Soldadura.
- ✓ DBH gainitu ez duten 15, 16 eta 17 urte bitarteko gazteentzat.
- ✓ Bi urteko ikasketak.
- ✓ Bigarren mailan praktikak, eskualdeetako lantegietan edo udalentsat lanak eginez.

Argibideak jaso eta izena emateko:

Urola Kostako Udal Elkartea
Soldadura Zentroa

Estazioaldeko industrialdea, Urola plaza 10, Zumaia Tel. 943862576 edo 943890808
soldadurazentroa@urolakosta.eus www.urolakosta.eus



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA